

Memoria gorde,  
oraina bizi,  
etorkizuna eraiki,  
izan Kronikalari!



## HERNANI ERROTZEN

# 'Errotzen hAstea', bihartik ostiralera

Hernani Errotzenek antolatuta, hiru ekintza izango dira, Biterin: Euskal Herriko frontoiei buruzko erakusketa eta hitzaldia; eta 'Eusklabo alaiak' bakarrizketa ilustratua, Asisko Urmenetaren eskutik.

EKINTZAZ betetako astea antolatu du Hernani Errotzen elkar-teak, bihar hasi eta ostiralera bitarte: *Errotzen hAstea*.

Lau egun horietan, erakusketa jarriko dute Biterin: *Euskal Herriko frontoiak*. *Hernani 1873-1876*. Goizez zein arratsaldez egongo da ikusteko aukera. Goizetan, 10:00etatik 12:00etara; eta arratsaldean, 17:00etatik 20:00etara.

Eta gai horri buruz, Euskal Herriko frontoiei buruz, hitzaldia eskainiko du, asteazkenean, Iñigo Uriarte arkitektoak: *El ágora vasco-navarro*. Biteri kultur etxean bertan izango

da hori ere, 19:30etan hasita. Solaserako tartea ere egingo dute, bertaratuekin.

### Bakarrizketa ilustratua ostegunean, Urmenetarekin

Eta ostegunean, azkenik, bakarrizketa ilustratua izango da, Asisko Urmeneta ilustratzailearen eskutik: *Eusklabo alaiak*. Arratsaldeko 19:00etan izango da, Biterin. Hainbat ustelkeria kuestionatuko ditu Urmenetak, «umorea, marrazkia eta duda metodikoa lagun», aurreratu dutenez. Izenburu bereko nobela ilustratua kaleratu zuen Urmenetak, 2017an. ||



Bakarrizketa ilustratua eskainiko du Asisko Urmenetak, ostegunean.

Argazkia: OIHANER EUSKARAREN ETXEA

## UDALA PLENOA

# la 4,5 milioiko gerakinarekin itxiko du Udalak 2017 urtea, biharko plenoan

Iazko aurrekontuaren likidazioa positiboa izan da, eta 2018koari gehituko zaio. Hori eztabaidatuko dute biharko plenoan, beste bederatzi punturekin batera. Pleno aretoan izango da, 19:00etan hasita.

BIHAR bilduko da Hernaniko Udaleko plenoa, arratsaldeko 19:00etan hasita, udaletxeko pleno aretoan. Guztira, 11 puntu izango dituzte lantzeko, eta horietako bi, dagozkio 2017ko aurrekontuaren likidazioari. Aurrena, likidazioaren emaitzaren berri emango dute. Positiboa izango da, eta ia 4,5 milioiko gerakina izango du: 4.449.706 euro Udalak, 64.140 euro Ereñotzuk, eta 797 euro Zerbitzu Sozialek. Hiruen kasuan, likidazioak betetzen ditu

«egonkortasun eta finantza iraunkortasun irizpideak».

Udalak, 25.714.326 euroko aurrekontua izan zuen 2017an, eta sarreraren %108a eta gastuen %90a exekutatu ditu. Diru sarrerak haundixeagoak izan dira, «batez ere, enpresen zenbait zerga likidatu direlako», azaldu dute. Eta gastu gutxiago egitearen arrazoia da, «beste urteetatik zetozen partida batzuk doitu direla». Jakinarazi dute, gainera, %4,36ko zorra duela Udalak (1.449.645 euro), «Gipuz-

koako udalerrien batzbestekoaren oso azpitik (%16,2)».

### Gerakina, aurten proiektuak hobetu eta berriak gehitzeko

Eta plenoko hurrengo puntuan eztabaidatuko du plenoak, zer egin ia 4,5 milioi euroko gerakinarekin. Udal Gobernuaren proposamena izango da, 2018ko aurrekontuan txertatzea, dagoeneko jasota dauden hainbat proiektu hobetzeko, partidak haundituz; eta aurrerago egingo diren beste zenbait

proiektu berri bideratzen has-teko. Maiatzeko plenoan eman-gu du horien berri.

Udal Gobernuak adierazi du, emaitza horrek islatzen duela, diru publikoa «zentsuz eta arduraz» kudeatzen ari dela, eta «sortzen diren baliabide guztiak herritarren beharrak asetzeko» erabiltzen direla.

Biharko plenoaren aurretik, Tokiko Gobernu Batzordea bilduko da gaur, 09:00etan; eta Hirigintza eta Ingurumen Batzordea bihar, 18:00etan. ||

## KULTURA

### Kulturari buruzko hausnarketaren bilera, atzeratuta

Gaurko jarri zuten hurrengo zita, kulturari buruzko hausnarketa prozesuaren barruan; baina ekintza-plana lantzeak uste baino denbora gehiago hartu diela eta, atzeratu egin dute. Datozen asteotan jakinaraziko dute bileraren data berria. ||

## IRUÑA-VELEIA

### Bilera irekia gaur, auziari buruz

Bilera antolatu dute gaurko, arratsaldeko 18:00etan Biterin, Iruña-Veleiako lagunek. Bertan, auziaren egoerari buruz hitz egingo du Tomax Elortzak, eta proposatuko dituzte, auziak hartutako bideari erantzuteko egingo diren ekintzak. ||

## TRAFIKOA

### Karabel-Balantxa arteko tunela, itxita

Karabel kaleko obrak direla eta, itxita egongo da Karabel eta Balantxa bidearen arteko tunela, gaur hasi eta maiatzaren 21era bitarte. Epe horretan, Balantxako 1-5 garajeetako kotxeek Zinkoeneatik sartu beharko dute. ||

## GIMNASIA

### Udalekuean izena emateko, orain

Gimnasia udalekuak antolatu ditu Hernani Gimnasia Elkarteak, uztailearen 2tik 13ra eta 16tik 27ra (09:00-13:00), 2006-2011 urteetan jaiotako haurrentzat, taldeko zein kanpoko. Izena emateko epea zabalik dago, apirilaren 30era arte: *whatsapp* bidez 688 688 444 zenbakian, *hernanigimnastika@gmail.com*, *www.hernanigimnasia.com*. ||

## ARRAUNA

### Neska promesak ederki, Legution

Legution jokatu da, asteburu honetan, Euskadiko Batel Txapelketa; eta maila ederrean aritu dira neska promesak. Ez ziren finalean sartu, baina bigarren izan ziren, kontsolaziokoan. ||

**mikel armendariz**  
proiektu eta instalazio  
elektrikoak  
Tel. 649 846 422  
HERNANI

**Allianz** ASEGURUAK  
bizitza -  
lurpekoak -  
ibilgailuak -  
etxeak -  
komertzioak -  
enpresaak -  
andara zibila -  
finantza aseguruak -  
inbentzioak  
**agustin ezponda irizar**  
agentzia  
Nagusia, 13  
Tel.: 943 55 73 28  
Faxa: 843 33 57 71

**TILIN & TOLON**  
BELAR DENDA  
TERAPIA NATURALAK  
KONTSULTAK  
943 55 56 94  
Tximta, 10 - HERNANI

**Funeraria VASCONGADA**  
Zure eskura  
24h-ko zerbitzua  
943 376 980  
Orkolaga, 2-4  
943 55 79 01  
HERNANI  
[www.funerariavascongada.com](http://www.funerariavascongada.com)



**TAXIAK:** 943 550093 | **UDALTAINGOAK:** 943 248900 | **DYA:** 943 464622 | **AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 | **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 943 203020 | **JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103 / **Egunez:** **Castilla** Urbietta, 7 (Hernani) **943 552941** / **Gauetz:** **Castilla** Urbietta, 7 (Hernani) **943 552941**

ERREMONTA SAGARDOAREN TXAPELKETA

# Uterga-Zubiri eta Urriza-Garces finalean, Sagardoaren Txapelketan

Endika Barrenetxeak, Seguroolarekin, galdu egin zuen semifinala (33-40), eta Zubiri goizuetarra ariko da final haundian, datorren larunbatean.

ARITZ Zubiri goizuetarra izan zen nagusi, Urumea bailarako lehian, Sagardoaren Txapelketaren barruan. Utergarekin, Altzueta sagardotegiaren ize-nean, 40-33 irabazi zuen semifinala, Endika Barrenetxea hernaniarraren eta Seguroalaren kontra (Oialume-Zar).

ere egin, bost tanto sakez eta beste zazpi jokoan; eta horri esker lortu zuten garaipena. Ederki aritu zen Barrenetxea ere, guztira 18 tanto eginda, bost akatsekin; baina Seguroala bere mailatik behera aritu zen, ezinean.

Hori horrela, Altzuetako bikotea ariko da final haundian, datorren larunbatean; eta aurrean, Gurutzeta sagardotegi-

koa izango du: Urriza eta Garces. Ederki kostata, hala ere. Juaneneak eta Endikak (Larre Gain) izan zuten partiduen kontrola, 21-27 jartzearaino; baina 10-0eko partzial batekin, erabat aldatu zuten partidua, Urrizak eta Garcesek. Azkenean, 40-34 irabazi zuten, eta 24 tanto eginda bukatu zuen Urrizak, hasieran jokoan sartu ezinda aritu arren. ||

DANTZARI FESTA



18 dantza talde elkartu ziren Plazan, herritarrekin batera dantzatzeko.

Euskal dantzak, alaitasun iturri

Atzo bukatu zen Dantzari Festa, egun nagusiarekin. Euskal Herri oso-ko dantzariak bildu ziren Hernanin, herriko kaleak alaitzeko aurrena, eta Plazan, herritarrekin batera, dantza saio alai eskaintzeko gero. Guztira, zazpi probintzietako 18 dantza talde izan ziren herrian, aurreikusitako bi taldek huts egin baitzuten, eta azkeneko momentuan gehitu baitzen Lapurdiko beste talde bat, Itsaso herrikoa. ||

PALA TILOS 7 PASA

**ASTE HONETAKO PARTIDUAK**  
**Gaur, astelehena**  
**18:30,** Nuin-Urigoitia/Manterola-Arandia  
**19:15,** Elozegi-Brosa/Loitegi-Arozena  
**20:00,** Lujanbio-Cisneros/Iraola-Agirre  
**20:45,** Elozegi-Brosa/Erdozia-Loran  
**Bihar, asteartea**  
**18:30,** Irazustabarrena-Mendizabal/Maneiro-Aizkorreta  
**19:15,** Lizasoain-Otaegi/Loidi-Amas  
**20:00,** Egoitz-Gaizka/Popin-Txetxo  
**Etzi, asteazkena**  
**18:30,** Goia-Zurutuza/Azaldegi-Aranburu  
**19:15,** Xenki-Andutz/Ruiz-Arzuaga  
**20:00,** Luixa-Luixa/Larreategi-Elizari  
**Apirilak 26, osteguna**  
**18:30,** Zubimendi-Ruiz/Goia-Zurutuza  
**19:15,** Lujanbio-Lujanbio/Zabala-Murgiondo  
**20:00,** Ekhiñe-Garazi/Imaz-Azpiazu

KIROL TABLA ASTEBURUKO EMAITZAK

TERRAZEN		PALA - Euzkoako Erreleko Txapelketa	
Gronkolo Mela	Gobera-Hernani	66-12	Segurak: 3go maila
Grak. Baskil Ligo	Dunago-Hernani	36-24	Segurak: 2go maila
Bermeakalari	Iri 3000-Hernani	25-12	Segurak: 1. maila
Talantziak (Luz) E	S. Mari Seguroa/Otaegi A-Hernani	17-14	
Talantziak (Luz) E	S. Mari Seguroa/Otaegi B-Hernani	8-33	
PITIBOLA		PUBLI PELOTA - Txapelketa irabazleak	
Muz. Orotzako Erreg.	Hernani-Antsoa I	4-1	Segurak
Muz. Erreg. Erreg.	Urtiaga-Hernani	2-1	Segurak
Muz. Luizade Mela	Hernani-Antsoa	4-1	Segurak
Muz. Sub. Ota. Mela	Talantziak-Hernani	7-1	Segurak
Muz. Kad. Ota. Mela	Hernani-Hernani	8-0	Segurak
Muz. Kad. Ota. Mela	Hernani-Hernani	1-1	Segurak
Muz. Kad. Ego Mela	Zaldua-Hernani I	3-1	Segurak
Muz. Kad. Ego Mela	Hernani-Hernani II	1-1	Segurak
Muz. Eri. Eri	Hernani-Hernani	4-1	Segurak
Muz. Eri. Ota. Mela	Hernani-Hernani	4-1	Segurak
Muz. Eri. 3go maila	Talantziak-Hernani	4-1	Segurak
Muz. Eri. 1. maila	Talantziak-Hernani	2-1	Segurak
MARRIATZEN		PUBLI PELOTA - Txapelketa irabazleak	
Muz. Baskil Ligo 3go maila	BB Hernani-Talantziak	67-10	Segurak
Muz. Baskil Ligo	Hernani-Hernani	37-00	Segurak
Muz. Baskil Ligo	BB Hernani-Hernani	45-07	Segurak
SAGARDOA		PUBLI PELOTA - Txapelketa irabazleak	
Muz. Baskil Ligo	Baskil-Hernani A	25-19	Segurak
Muz. Baskil Ligo	Baskil-Hernani B	29-17	Segurak
Muz. Baskil Ligo	Baskil-Hernani C	8-28	Segurak
Muz. Baskil Ligo	Hernani-Hernani	24-8	Segurak
Muz. Baskil Ligo	Hernani-Hernani	23-19	Segurak
Muz. Baskil Ligo	Dunago-Hernani	16-10	Segurak
BOLIBOLA		PUBLI PELOTA - Txapelketa irabazleak	
Muz. Baskil Ligo	Hernani-Hernani	3-0	Segurak
Muz. Baskil Ligo	Hernani-Hernani	8-1	Segurak

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

**JOSE MARIA ARIZKORRETA LARREA**  
 Izandu zera danontzako.  
 Mila esker,  
 ikusi arte.  
**ZURE KOADRILA**  
 Hernanin, 2018ko apirilaren 23an

**JOSE MARIA ARIZKORRETA LARREA**  
 (Txanxangorri Elkarte kidea)  
 - Goian Bego -  
 Betiko izango zaitugu gogoan.  
**TXANTXANGORRI ELKARTEA**  
 Hernanin, 2018ko apirilaren 23an

**XI. URTEURRENA**  
**Amaia-Aimar Elozegi Ansa**  
 "MOYO"  
 "Egunsentiko intza, goizeko loreak  
 Maitasunezko hitzak barruan gordeak"  
 Hernanin, 2018ko apirilaren 23an

IRAGARKI MERKEAK

**Super pintxo potea Txema tabernan.** Ostegunean 19:00-21:00, eta ostiralean ordu berean, pinta zerbezaren prezioan.  
**Inigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesiologia, reiki, homeopatia, akupuntura... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

**Toscana Casa Mazzoni**  
 Amets bat bizi, mahasiak eta bodegak bisitatu, tokiko gastronomia dastatu. Antolatutako ibilbideak. Toki magikoak benetan. Bikontzentzako zela lagun talde bikontzentzako primerakoa. 6 gela basterik ez. ametsaren gutxiak.  
 Informazio: +39 0564 967488 | [www.casamazzoni.it](http://www.casamazzoni.it)  
 Hitzartu: +39 0564 404035